



B/SS 2025 araudia (patinatzaileak)

1. artikulua

Behobia-Donostia 2025 patinetan egingo den proba korrikalarien araudiaren arabera ospatuko da, honen ondoren doazen gehigarriekin gainera.

2. artikulua

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Gainontzeko babesgaiak gomendagarriak dira.

Lerroko patinetan edo tradizionaletan (quad) bakarrik onartzen da parte-hartzea, gehienezko luzera 50 cm izanik.

ERABAT DEBEKATUTA dago makilak erabiltzea.

3. artikulua

Dortsala **aurrekaldetik** eraman behar da, bularrean, bai zenbakia baita babesleen izena garbi ikusten direlarik.

Dorsal-pegatina izterrean jarri beharko da.

4. artikulua

Patinatzaileen artea **9:35tan** izango da Behobian

Patinatzaileen helmuga **10:55etan itxita geratuko da** Boulevardean.

5. artikulua

Sailkatzeko gehienezko denbora ordubete eta hogeit minututakoa (**1h 20'**) izango da, aurreneko patinatzailearen artea denboratik hasita. Denbora hau baino gehiago egiten duten patinatzaileak ez dira sailkatuak izango. Gutxieneko batz-besteko abiadura 15 km/h-koa da.

Lehenengo korrikalarien aurretik doan motorrak **harrapatutako patinatzaile guztiak** ezingo dute lasterketan jarraitu, eta **ibilbidea utzi** egin beharko dute.

6. artikulua

Ibilbidean zehar zenbait ordutegi-kontrol puntu izango dira. Puntu hauetatik behar baino beranduago pasatzen diren patinatzaileak proba utzi egin beharko dute.

Denbora mugak eta tokiak hauek dira:

-km 05 9:55

-km 10 10:15

-km 15 10:35

-km 20 10:55

7. artikulua

Behobia-Donostia patinetan lasterketa herrikoia bat da, hala ere **gutxieneko oinarri fisiko zein teknikoa** eskatzen du. Ibilbidean zehar antolatzaile eta epaileak egongo dira, behar den gutxieneko maila fisikoa zein teknikoa ez duten patinatzaileak kaleratzeko gaituak direnak, beste partaideei zein beraiei buruei kalterik sortu ez dezaten.

Nahiz eta herrikoia izan, Behobia-Donostia **lasterketa bat da**, ez paseo lasai bat. Beraz, behar beharrezkoa da patinen gainean frenatzen eta taldean moldatzen jakitea, eta lasterketa emandako epean bukatzeko beharrezkoa den baino bataz-besteko abiadura azkarrago batean joateko gai izatea.

8. artikulua

Guztiz debekatuta dago bizikleten zein beste ibilgailuen aspirazioa aprobetxatzea, baita ere ibilgailu horiei heltzea, sailkapenetik at geratzeko arrazoia dela eta.

9. artikulua

Patinatzaile batek, edo patinatzaile talde batek, aulkidun lasterkari bat harrapatzera doanean, garaiz abisatu egin behar du, eta maniobra seinalizatu, aulkidunari kalteri egin gabe, ezta espero ez den maniobra eginez.

10. artikulua

Behobia-Donostia patinetan lasterketan parte-hartzaile edozein eta guztiak araudi orokorreko zein berezi honetako araudiak errespetatzeko konpromezua hartzen du, bereziki proba uzteari dagokion puntuan epaileek egokitzen ez badute bere maila tekniko/ fisikoa, gutxieneko ordutegia jarraitzeko gai ez bada edo aurreneko korrikalariaren aurretik doan motorrak harrapatuta bada.

Puntu hauetan arau-hausteak hurrengo 2 urteetan proban izen-emateko debekua izango dutelarik lotuta.